

Peio Goikoetxea:

“Munduko ziklo-kros txapelketara joatea saria izan da niretzat”

Chequiako Tábor herrian ospatu da aurtengo ziklo-kroseko munduko txapelketa eta Peio Goikoetxea ermuarrak proba horretan parte hartzeko aukera izan du. Minus zazpi graduko tenperaturarekin burutu zen lasterketa eta Peiok 51. postua lortu zuen.

Hamazortzi urte bete berri ditu Peio Goikoetxeak eta azken lau denboraldietan ziklo-krosean aritu da. Burututako azken lasterketen artean Táborreko mundiala dago eta hau lasterketa gogorra izan zen ermuarrarentzat: “Gogorra baino, zaila izan zen -azaltzen du Peiok- lurra izoztuta zegoen eta ia kurba guztietan lurrera jausten nintzen; hangoak, berriz, ohituta daude eta ez ziren hainbeste jausten. Gainera, zazpi gradu zero azpiko tenperatura zegoen lasterketa egin genuenean”.

Lasterketan 80 lagunek parte hartu zuten gutxi gora behera, lehen eta bigarren urteko jubenilak, eta Peio Goikoetxea (bigarren urtekoa) 51.a izan zen. “Esperientzia ona izan da eta oso ondo pasatu dut, maila handia zegoen. Gainera, hara jo-

atea bakarrik sekulako saria izan da niretzat”, dio txirrindulariak. Bertan, bi galiziar eta Ordiziako lagun batek ere parte hartu zuten eta Peio ez zen bakarrik egon: bere gurasoek, anaiak eta argazkilari batek, kotxea hartu eta 18 orduko bidaia egin zutelako Chequiako lasterketa ikusi ahal izateko.

Bideko txirrindularitza

Euskadiko selekzioaren ordezkaria da Peio eta azken 4 urteetan 20 bat lasterketetan parte hartu du. Bizkaiko eta Euskadiko sailkapen orokorreko txapelduna izan da eta 2. geratu da aurten Espainiako txapelketan. “Euskadin lasterketa dezente dago eta maila ona dago. Espainian, berriz, ez dago ia lasterketarik ezta mailarik ere (Galizian ezik). Kanpoko jendea hona etortzen da lasterketetan parte hartzeko”.



Ziklo-kros eta bideko txirrindularitzaren artean banatzen ditu indarrak Peiok. “Errepidean erresistentzia da garrantzitsuen, besteek zer egiten duten ikustea... Ziklo-krosean, berriz, 40 minutuko lasterketak egiten dira asko jota, eta hasieratik topera joan behar zara”. Eta aukeratzekotan argi du: “Ziklo-krosa dibertigarriagoa da, baina bideko txirrindularitza gehiago gustatzen zait eta profesionalki irteera gehiago du. Gainera, Ermuan dauden profesionalak

ikusteak asko motibatzen du. Zaila da, baina zuk ez baduzu sinesten...”.

Datorren urtean afizionatu mailara jauzia eman beharko du, baina momentuz hurbilen dituen lasterketetan du burua: martxoaren 14an bideko txirrindularitzako denboraldiari ekingo dio Eibarren. “Helburuak uda partean finkatu ditut: Bizkaiko itzulia, Ermuko lasterketa eta Euskadiko txapelketa. Heldu birtartean, lasai-lasai entrenatzen ibiliko naiz”.

Dorleta Vidal

drogeteniturrri



943 17 93 50
Erdikokale 2, 1 - Elexoste
www.euskalbirusa.org

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09
Goienkale, 12 - behea